

IRITZIA

Jokin Martinez

1RREPORTAIA

"Adindu"
aisiardi taidea
San Lazaron

"9IGARRIA

Kiiibarren

BERRETAN

Lorea Perez de
Albeniz, Jaiak 97"ko
kazetaria

woprie

Herriko Eskalada
Txapelketa

KULTURA

Baizola anaiak,
Deba Beheko
Trikiti txapeldunak

BARREN

1997ko irailaren 26a
V. urtea - 207. zkio.

E L G O . I B A R K O A S T E K A R I A




Arizabtxakurren erakustaldia San Migelen

Oñatiko txapelketako irabazleak hartuko du parte

"Txakur onak arrazakoa eta ondo ikasia izan behar du" Jose Antonio Arrillaga

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK eta GARAJEAK **SYCK**



- Etxebizitza bakarra, ganbararekin
- Etxe osoak kanpora ematen du, eguzkitsua
- Material bikainekin amaitua
- Gasezko berogailua eta ur bero indibiduala
- Ordainketa-era hitzegitekotan

EZ ova 0104/10/

Informazioa eta salmenta 20 83 16

3 ARR! 123 ARR! 123 ARR! 123 ARR! 123 ARR! 123 ARR! 123
R! !, 1° 123 AT 1 11
3 12; ARFts 23 . IR!, 1 2: 4!, 1
R! .3 AR...! 123 „istk. R.; A
123 ABPI! 123 ABPI! 123 ABPI! 123 ABPI! 123



321

Agurainen irailaren 28an
intsumisio eguna 97



zapatuan: **konzertua**

desobedientzia tailerrak kontzertuak maixa eta ixiar internet gela
amigos dei kañamo rokodromoa tirri tarra fanfarrea performanceak
gizarte mugimenduen informazioa argazki erakusketa bertsolaflak
eskulanen erakusketa ohe elastikoak herri kirolak eztabaida etab...

1-IGE 131X Fra 111,.C) "FAM-1:3)1E. ANIESITEINI 111L TAft Sir".

Herriko soinuak



JOKIN MARTINEZ

— daztea tokatzen zaidan bakoitzean beti arazo berdinarekin egiten dut topo.

Hasiera. Boligrafoa eskuetan, papela zuriz eta burua ideiaz irakiten baina ezin hasierari nik nahi niokeen forma eman. Dena den, hasiera alde batera utziz heldu diot artikulu honi dagokion gaiari. Elizako kanpandorrea eta kanpaien soinua.

Betidantik gustatu izan zait kanpaien soinua. Berdin dio kalean, telebistan edo irratian entzundakoak. Elgoibarren orain dela gutxi berriro berpiztu dira herriarekin bat egiteko. Jotzen duten bakoitzean, bai orduak markatzeko bai meza, hiletak edo beste edozein ospakizun iragartzeko, jendeak bat egiten du kanpaien soinuekin. Harrigarria da kanpaien eta pertsonen arteko harreman misterioitsu horren zergatia. Hain zorgarria da nire bakardadean nagoenean kanpaiek irauten duten denboran horiez gozatzea.... Kanpaiek hitz egingo balizute bezala da eta nire gorputza eta sena hunkiturik gelditzen dira. Hain zirrara atsegingarria da, nire burua eta ideiak anulaturik eta nire begirada infinituan galduta gelditzen direla.

Are gehiago pozten naiz denbora pasatu eta gero kanpaiek ez dutela euren xarma galdu jakitean. Norbaitek festetako programan argitaratu zen "Las campanas de mi pueblo" izenburuko artikuluia irakurri badu, badaki zergatik diodan hau guztia. Artikulu hau 1955ean idatzi zen, garai hartan kanpaiek bere funtzioa zuten baina, aldi berean, herriarekin bat egiten zuten, "herriko beste bizilagun bat izango balitz moduan", aditzera ematen du artikuluak.

Aipatu behar dut artikulu oso ona iruditzen zaidala eta ikaragarri gustatu zitzaidala. Luis Maria de Ezenarrok elizaren kanpandorrea deskribatzeko duen trebezia harrigarria da. Nire iritziz kanpandorrea oso polita irudikatzen du baina artikuluia irakurri ondoren are politagoa ematen du. Deskripzioa oso sinplea da, zuzena, eta bere edertasuna miresten duen adjetibo ugari erabiltzen ditu.

Espero dut kanpaiek horrela segi dezatela urteetan, balore baliotsua bai tugu esku artean (batzuei infernuko zaratak iruditu arren, igande goizetan esnatu egiten dituztelako).

"Harrigarria da kanpaien eta pertsonen arteko harreman misterioitsu horren zergatia"

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

UDAKO AJEAK 3: "ARTILLERO, DALE FUE60..."





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
r1 74 41 12
Publizitatea:
tr 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Onuste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	I rati Agirreazaldegi, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edume Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guille, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi LeOn, Jokin Martinez, Juan Luis Mugeriza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurtaritzako Kultura*



..... *fundazioa*
fundaciOn

"Bakea behar dugu"

uskal Herriak espainiar estatua-L: rrekin bizi duen gatazkak konponbide negoziatua behar duela esatea ez da gauza berria. Izan ere, euskal herritarron gehiengoa aukera horren alde gaude. Hau horrela izanik, gaur egun bizi dugun egoera politikoak guztiz bestelako errealitatea erakusten digu. ETak 95eko uztailan aurkeztu zuen Alternatiba Demokratikoari PPK erabateko ukazioa adierazi dio behin eta berriz, estrategia itxia, poliziala eta errepresiboa eskainiz. Berdin egiten du presoan gaiarekin: euskal preso politikoek Euskal Herrian egoteko eskubide guztia dute, euskal herritarrok horren alde gaude baina dispersio politikarekin jarraitzen du, Juan Carlos Hernando politika horren emaitza izan delarik (bere ziegan hurkaturik azaldua uztailaren 2lean Albazeteko gartzelan). Josu Zabalaren heriotzak, Salegirenak geroago, gerra zikinaren atarian jartzen gaitu. Eta orain Herri Batasunaren Mahai Nazionala gartzelaratu nahi du berriro ere, Alternatiba Demokratikoaren bideoa erakusteagatik.

Miguel Angel Blancoren heriotzarekin sekulako kanpaina mediati-koa antolatu zuen PPK Herri B atasuna kulpabilizatuz. Paktuko Alderdiak erabateko babes eman zioten eta, gaur egun ere, horretan dira: EITBn hartu nahi dituzten neurriak, preso politikoaren gaia Giza Eskubideen Batzordetik ateratzea, askatasunaren murrizketa...

Eta PNV eta EA aipatu nahi ditugu hemen bereziki, ofentsiba hau euskal nazioaren proiektuaren aurka zuzendua dagoelako, eta ez ETA eta HBren aurka soilik.

HBri leporatu nahi zaio ardura

baina GAL sortu zuen PSOE ez al da arduraduna? Badirudi ezetz, PNV eta EA lasai gobernatzen ari baitira eurekin. Gure herriak heroinaz betetzea onartu zuten politikariak ez al dira arduradunak? Eta presoan jipioiak eta hurkamenduak permititzen dituztenak? Torturari babes politikoa ematen diotenak? Gerra zikinaren aurrean mutu gelditzen direnak? Nork ditu hemen esku zuriak?

Bitartean Irlandan hizketan dautte, hango egoerari irtenbide politiko justu eta demokratikoa bilatzen.

Hemengo gatazkari ere irtenbide politikoa dagokiolako; gaurdanik horren alde jokatu behar dugulako, bi mozio aurkeztuko ditu HBk hurrengo udalbatzean:

- "Bakea behar dugu" dioen zapi bat jartzea Udaletxeko balkoian.

- "Euskal Herrian Adierazpen Askatasunaren aldeko Manifestua" aurkezteagatik HBko Mahai Nazionalaren gartzelaratzearen aurkako mozioa. HBk aurkeztuko du PNVk ez duelako manifestuaren mozioa onartu.

Elgoibarko **HB**

GALDERAK

- IMHko etxe berrietan bizi den pertsona batek honako galdera hau luzatu nahi dio Hirigintzako batzordeburuari: "Noizko **konponduko dute Kiroldigitik IMHko etxeetara doan bidea?**"

Jose Mari Oruesagastik esan digunez, "IMH guruan eraiki diren etxeek eta orain egiten ari diren poligono erresidentzial bat osatzen dute. Poligono hori autopistako zubiaren azpian arnaitzen da. Autopistainoko bidea, beraz, poligono hori egiten ari den konstruktoreak egin behar du. Autopistatik Kiroldegira bitarteko terrenoek beste poligono erresidentzial bat osatzen dute. Gaur egun hiru jabe ezberdinenak dira lur horiek. Hortaz, poligono horretan konstruktorearen batek etxeak egiten baditu inoiz, konstruktora horrek bidea ere egin beharko du. Orduan elkanuko dira autopistaren zubi azpian IMHko etxeetako bidea eta autopistatik Kiroldegira bitarteko bidea. Hala ere, bidea probisionalki konpontzeko aukera aztertzen ari da Udala".

KEXAK

- **Herritar batek** deitu digu honako hau plazaratu nahi duela esateko: "Urasandin bizi den elgoibartar bat naiz. **Joan den igandean**, hilak 21, goizeko **12ak aldera kale aldera jaitsi nintzen**, Madalara, zehatz esateko. Biderik motzena fundizio ondotik doana denez, handik joateko erabakia hartu nuen. Tailer inguruetara iritsi nintzenen dozenaka auto aparkatuta ikusi nituen. Errepidea guruzatu eta Guass dantzalekura inguratzerakoan, berehala konturatu nintzen zergatik zegoen horrenbeste auto. Jendez gainezka zegoen zubi ondoko parkea, eta **Guass-a irekita**. Etxera bueltan, **arratsaldeko 3ak aldera, Guass dantzalekua oraindik zabalik zegoen. Ez al du Guassak, gainontzeko taberna eta pub-ek bezala, ordutegia errespetatu behar?** Zergatik ez da kasu guztietan legea modu berdinean aplikatzen? Ez al du Udalak arazo honetan eskua sartzerik?"

BLH 5) 1,0 £MT



Bernabe Mujika

Perretxikoetan aditua

Iganderako, hilak 28, Karakate Mikologia Elkarteak Deba aroko Haurren XXIII. Perretxiko Lehiaketa antolatu du. Hori dela eta, gai honen inguruan zertxobait gehiago sakondu nahi izan dugu. Perretxikoen mundua gertu-gertutik ezagutzen duen elgoibartarra dugu **Bernabe Mujika, Karakate Elkarteko ohorezko hazkidea** dena eta Aranzadi Elkartean 28 urte daramatzana.

- **Zer nolako harrera izaten du Perretxiko Lehiaketak haurren artean?** Ez dot nahi pesimista izatia baina nere ustez bajatu ein da. Ume asko reglamentua irakurri gabe etortzen dia. Hori ezin leike ametidu. Reglamentu hau errezenetarikua da, 28 perretxikon generua eta espeziea bakarrik eskatzen da. Beste guztiak presentau bakarrik ein bihar dia.

Nola bereiz daitezke perretxiko onak eta pozointsuak? - Botanikoki klasifikauta daude. Perretxikua hartzen danian gauza askori beiratu bihar jako: irekitako guardasola modukua dan ala ez; laminak, tubuak edo orratzak dakazen txapel azpitan; eraztuna dakan ala ez; kertenan puntan oskola dakan ikusi, koloria, useina, gustua, gogorra ala biguna dan... Nola apurtzen dian ere ikusi bihar da. Batzuk klario-na edo lakre bat bezela apurtzen dia; beste batzuk ezpala balitz bezela, siku-sikuan. Honek erakusten digu zein klase dan: russula, boletua, amanita, rozites... Gero, liburuan beiratu bihar da perretxiko bat jatekua dan ala ez jakiteko.


- **Perretxiko-lekuak zein diren ez da sekula esaten. Hasi berri batek nola aurkituko ditu orduan perretxikoak?** Ni neu ere bi-latzen txarra naiz! Beste kiroletan bezela, berezkua eukitxa eta buruetatik ikasitxa. Normalian ez da esaten hango edo hemengo pinarixan asko edo gutxi eitxen dan; edo San Pedron, San Migelen edo halako lekutan hartzen dan. Esaten dana da haritza, gaztania, pinua edo urkixa daon lekuan zer perretxiko klase eitxen dan, bere habitat-a. Gaur egun hainbeste jende dabil perretxiko bila, ikusi eitxen dala nun ibiltzen dian.

- **Ba al dago ezagutzen ez duzun perretxikorik?** - Asko. Pentsau, Aranzadik 2.000 dakaz klasifikauta eta ondik falta dianak. Nik 300 edo 400 bat bakarrik ezagutzen ditzut; hortik 2.000ra!



ESKERTZA

1997ko uztailaren 28an, 71 urte zituela hil zen IASONE VALLEIO ARRIAGAREN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



San Lazaro Bizitzaren alde ludikoa lantzen

Behin baino gehiagotan entzun izan dugun bezala, zaharra izateak ez du derrigorrean bizi kalitatearen gain-behera ekarri behar. Izan ere, asko eta asko dira jubilatuta eta gero-ko urteak aprobetxatzen dituztenak gaztaroan egin izan ez zuten ekintzetan aritzeko. San Lazaro egoitzan 44 lagun bizi dira gaur egun. Otsailetik hona Eibarko "Adindu" taldea lanean ari da bertan, bizilagunei bizitza aktiboa izaten irakasten.

Adindu" hiru pertsonak osatzen dute: Sonia Ulazia, Elena Iraolagoitia eta Eva Perez De Albeniz. Hirurak sikologoak dira eta gerontologiari buruzko masterra egiten ezagutu zuten elkar. Amaitzean, elkarte bat sortu eta lanean batera aritzea pentsatu zuten. Horrela sortu zen "Adindu". Iaz Elgoibarko Udalean San Lazaro egoitzan martxan jartzeko proiektua aurkeztu zuten. Onartua izan zen eta otsailan hasi ziren lanean. Printzipioz sei hilabeterako kontratua sinatu zuten baina litekeena da beste sei hilabetez luzatzea.

Animazioa

"Adindu" k duen helburuetariko bat animazioa bultzatzea da. Soniak esan digun bezala, "era honetako egoitzatan jendea oso ondo egoten da zainduta fisikoki baina aisialdiaren arloa zintzilik geratzen da, ez daudelako horretarako gaituriko profesionalak". Hortaz, "Adindu" k aisialdi programa oso bat eskaintzen du. Izan ere, "egoitzek nolabaiteko irudi triste ematen dute. Badirudi

bertan bizi diren zaharrak denbora nola pasatzen den ikustera mugatzen direla. Bizitzak duen onena pasa zaiela eta asperturik bizi direla". "Adindu" irudi hori gainetik kentzen saiatzen da, "bizitza eman nahi diegu egoitzatan bizi direnei. Aktibo mantendu eta egunean zehar gauza desberdinak egiteko gai direla erakutsi".

Astean lau aldiz joaten dira egoitzara eta bi ordu eta erdiz jarduten dute ekintza desberdinak antolatuz.

Tertuliak eta eskulanak

Lehenik eta behin egoitzan bizi diren guztiakin elkarrizketak izan zituzten "Adindu"koek. "Banan-banan egon ginen beraiekin. Nolakoak ziren ikusi nahi genuen, lehen inpresio bat jaso eta, horren arabera, programazio konkretu bat osatu". Izan ere, Soniak azaldu digun bezala, "kontuan izan behar da non eta nortzukin egin behar den lan". Elkarrizketa horietatik abiatuz, beraz, nolabaiteko egitaraua osatu eta martxan jarri zuten. Momentuz, talde batek eskulanak egiten ditu, "hasieran gizonek eskulanak emakumeen gauzak zirela uste zuten baina gero, zein gauza egiten diren ikustean, eurak ere animatu dira. Zumez otarra politik egin ditugu eta laster alfonbrak egiten ere irakatsi nahi diegu". Horrez gain, bi tertulia talde daude. "Eskulanetan denak batera daude, euskaldunak eta erdaldunak. Tertulia taldeak, aldiz, banatu egin ditugu. San Lazaron baseritar asko dago eta horien mun-



Eelna, tertulia talde batekin.



Eskulanetan zumezko otarrak egiten ikasi dute

duak, bizipenak, ezagutzak eta hizkuntzak ez dute zerikusirik erdaldunen bizimoduarekin. Horregatik biltzetan banatzea hobe izango zela pentsatu genuen". Tertulia taldeak astean behin elkartzen dira eta gai diferenteei buruz hitzegiten dute, "batzuetan berez sortzen dira. Bat edo batek gaia mahaira botatzen du. Bestela, diapositibak ikusten ditugu eta egunkari eta aldizkarietako albisteak irakurri eta komentatu egiten dira".

Komunikazioa

Ostiraletan, berriz, guztiak batera bestelako ekintzak egiten dituzte, "Iudikoagoak. Esate baterako bingo asko gustatzen zaie, sari eta guzti. Pelikulak ikusten ditugu... Denetik piskat". Gainera, San Lazaron dauden gutxitu sikikoekin talde berezia sortu dute, "adinean aurrera egin duten neurrian ahalmen mentala galtzen joan dira eta horiekin beste mota batzuetako ariketak egiten ditugu, estimulazioa lantzeko. Adibidez, zein egunetan gauden, zein hilabetetan... memoria landu eta beti aktibak izatea da helburua. Bestela, poliki-poliki gero eta gehiago galtzen dituzte ahalmen guztiak".



Sekula egirt ez dituzten gauzak egiten ikasten dute.

Soniak adierazi digunez komunikazioa lantzea oso garrantzitsua da. "Sarrri gertatzen da horrelako tokietan jende asko bizi baina beraien artean ia harremanik ez izatea.

Gainera, logela konpartitu behar dute, jende berdina ikusten dute gunero, batera bazkaltzen dute... Eta, halere, giroa hotza izan daiteke. Bakardade handia igar dezake. Gure helburua, ekintza desberdinen bidez elkarren arteko harremanak eta komunikazioa lantzea da eta poliki-poliki ari gara lehen emaitzak ikusten". Egoitzako bizilagun batzuekin izan gara berbetan eta hauen hitzetan, "oso gustura gaude. Sekula in gabeko gauzak eitzen ditxugu eta asko ikasten da. Behintzat denboria pasaten dou eta ez gera lehen bezela ezer ein be gora begira egoten".

Zuzeneko tratua

Egoitza txikia izateak abantaila handiak ditu, "harremana askoz zuzenagoa da beraiekin. Guztiak ezagutzen dituzu eta beraiek ere ezagutzen zaituzte". Elgoibarren izan duten lehen esperientzia oso positiboa da, "jendearen harrera oso beroa izan da. Gu hemen ikustera ohitu dira eta asko eskertzen dute gure lana. Ez da denbora asko daukaguna baina ahal dugun guztia egiten saiatzen gara eta

eurak konturatzen dira, oso esker oneko pertsonak dira; eta esan eta adierazi egiten dute zurekin gustura daudela". Printzipioz sei hilabeteko epea zeukan programak baina gauza ia ziurra da luzatu egingo dela. Hala balitz, "gauza desberdinak egiten hasi nahi genuke. Lehenengo lana San Lazaroko bizilagunen artean beste hiru pertsona gehiago izatea zen. Hori lortu dugu. Orain, beste era batera hasiko gara lanean. Esate baterako, gimnasia lantzen hastea da gure asmoetariko bat".



Jolasen bidez estimulazioa lantzen dute.

Ba al dakizu zer den telebista digitala?



ERLANZ OLIVEIRA
14 urte, ikaslea

Zeozer entzun dot. Partiduak, pelikulak eta hola-kuak ikusteko pagau ein bihar da. Gure etxian ez dauka asmorik ipintzeko, karrua da eta.



AMAIA EZENARRO
35 urte, sikologoa

"Tele a la carta" antzekoa da, programak ikusteagatik ordaindu egin behar da. Nik ez dut telebista gehiegi ikusten eta ez daukat bat ere interesik.



MODESTO LARRAÑAGA
56 urte, pentsionista

Canal Plus-en tipokua pentsatzen dot dala, partiduak eta beste gauza batzuk ikusteko aukeria pagauta. Gurian ez dot uste ipiniko dogunik, bestela ere nahikua kanal badao.



ION IZAGIRRE
20 urte, ikaslea

Bai, kate eta programa mor-do bat aukeran ordainduta. Oin ere Canal Plus dakagu eta aurrera Canal Satelite jartzeko asmua badakau.



CLAUDI DE LA SERNA
53 urte, etxekoandrea

Gutxi gora-behera bai. Kate eta programa asko ikusteko aukera dago egunero eta edozein ordutan. Guk Canal Plus daukagu eta nahikoa da.



M. ROSA SANCHEZ
46 urte, etxekoandrea

Nire ustez dirua irabazteko sortutako mon taj ea da. Ikusleak kate gehiago izango ditu aukeran baina nire ustez nahiko kate dago dagoeneko, batez ere partiduak ikusteko!

150¹³ KILOMETROAK 97 PASAIA

URRIAK 5, IGANDEA


PREZIOAK: 12 urte arte: dohainik

12-18 urte: 500 pta.

18 urtetik gora: 1.000 pta,

IZENA EMATEKO: Elgoibarko Izarra

Ubitarte, 4 Tel: 74 16 26



ELGOIBARKO
IZARRA



ELGOIBARKO GIPUZKOAKO
UDALA FORU
ALDUNDIA

Telebista digitala

Internet, posta elektroniko eta horrelako berrikuntza teknologikoekin elkarbizitzen ohitzen hasiak ginenean, hara non agertzen zaigun masa-komunikazioaren eta astialdiaren mundua errotik astintzera datorren negozio berria: telebista digitala. Azken hilabeteotan "plataformen gerra" deitu denaren berri jaso dugu medio ezberdinetan baina, ba al dakigu zer dagoen honen atzean? Ba al dakigu zer den telebista digitala? Zer da eskaintzen digutena? Ordaintzeko prest al gaude telebista ikusteagatik?

Telebista digitalak, telebista kontsumitzeko modua aldatuko duela diote. Dagoeneko bi eskaintza edo plataforma ezberdin daude merkatuan: bat, "Canal Satellite" eta bestea, "Via Digital". Lehenengoa Canal Plus kateari lotuta dago eta bigarrena Televisión Española kate publikoari. Canal Satellite" urtarrilean hasi zen emititzen eta Via Digitalek bi aste daramatza martxan.

Plataforma batek zein besteak kanal ezberdin ugari ikusteko aukera ematen dute. Hori bai, edozer ikusi ahal

izateko, ordaindu egin behar da. Satellite bidez datorren telebista digitalaren seinalea etxean ikusi ahal izateko, antena paraboliko bat eta deskodifikadorea ins tai atu behar dira. Horiengatik, noski, ordaindu egin behar da. Plataforma bakoitzak "oinarriko pakete"ak eskaintzen ditu, hau da, musika, zinea, notiziak, telenobelak, haurrentzako kanal bereziak, dokumentalak eta beste kanal ezberdinak osatzen duten pakete edo multzoa. Pakete honek ere prezio bat dauka. Baina telebista digitalaren eskaintza ez da hor amaitzen. Estrenoko pelikulak, "Izarren ligako futbol partiduak", osasunari buruzko kanal mografikoak, gor eta mutuei zuzenduriko programak etab. ere ikusteko aukera izango da. Hori bai, pelikula bakoitzeko edo futbol partidu bat ikusteko hainbesteko bat ordaindu beharko da.

Era honetan ikusle bakoitzak nahi duena bakarrik kontsumitzen du. Bere gustuen arabera "menu" bat diseina dezake edo, hilean gastatu nahi duenaren arabera zer ikusi nahi duen planifika dezake.

Batzuen ustez, telebista kontsumitzeko modua aldatu egingo da; jendeak era selektiboagoan ikusiko du telebista, era kritikoagoan. Beste batzuen iritziz, telebistarekiko geneukan menekotasuna handitu egingo da; ordu gehiago pasatuko ditugu telebistari begira eskaintza bera ere handiago baita.

Argi dagoena da, azken hitza norberak duela. Baina dudarik ez dago telebistaren aro berriaren aurrean gaudela.

ISPILUARI BEGIRA



Idoia
Arrillaga.

**IBILIZEN zentroko
podologoa**

Zeren aldeko ibilaldia egingo zenuke ibiltzen?

- Gaur egun drogen kontrako martxa bat.
- Zein herrialdetara joango zinateke zapata magikoekin? Australia gustatzen jata asko.
- Noren pausoak jarraitu nahi zenituzke bizitzan? Nere gurasoak eredu ona dia neretzat.

Bidegurutze batera iristean, osasunak, maitasunak eta diruak bide desberdina izango balute, zein hartuko zenuke? Mai tasunarena.

- Zugar arrastoa utzi duen pertsona? - Aitxa.

- Zure bizitzan egin duzun hanka-sartzerik handiena? - Karrera ikasten hasi nitzanian musikia lagatzia, pianua lagatzia.

- Oinutsik ibiltzea gustatzen al zaizu?

- Asko, batez ere hondartzan eta belar gainian.

Takioia ala plataforma?

- Plataformia, takioiak txarrak dia hankarako, pisu guztia puntetara juten dalako.

Nori emango zenioke gustura ostikada bat?

- Inori ez, ez jata gustatzen jotzia.

- Eta zein albiste jasotzen duzu ostikada bat bailitzan? - Gerrak, atentauak eta holakuak.

- Egoera zailei aurre egiten diezu ala saltaka ateratzen zara? - Aurre eitxen saiatzen naiz.

- Zein pozima magikotik edan nahi zenuke?

- Inteligentzia eta gogortasunaren pozimatik.

- Zein izar ikustera joango zinateke Donostiako zinemaldira? Robert de Niro.

- Itsasbazterrean ibiltzea ala mendi gailurrera igotzea nahiago?

- Bixak, itsasoa eta mendixa ikustia gustatzen jata, Euskal Herrixan dakagun bezela.

Barkatuko ez zenueena?

- Printzipioz dana barkatuko nuke.

- Baloratzen duzun bertutea? - Karitatea.

- Amets bat? - Ume bat eukitzia. Neregatik ointxe bertan eukiko nuke.

- Sinesten duzu betirako maitasunean?

- Bai, dudaripe.

Artzain-txakurren erakustaldia San Migeleko jaietan

Oñatiko txapelketako irabazleak hartuko du parte erakustaldian

Tgandean, hilak 28, San Migel auzoko jaien barruan, artzain-txakurren erakustaldia izango da. Jose Antonio Arrillaga eibartarrak eta bere txakurrak, "Txiki", joan den asteburuan Oriatin izan zen Nazioarteko Txapelketako irabazleek erakustaldian parte hartuko dute. Jose Antonio eibartarra bada ere, San Migelen oso ezaguna da. Emaztea Belartondo baserrikoa da, "Txiki" txakurra ere bertan jaio zen eta entrenamenduak ere baserrian egiten dituzte.

San Migelen lehen aldiz egingo da artzain-txakurren erakustaldia. Dena ondo irteten bada, datorren urtean agian berriaz antolatuko dute. Jose Antoniok esan digunez, lekua bera ez da oso apro-

posa baina jendiantzako iekurik egokixena zala iruditxu jakun. Hesi moduko bat ipini dabe. Txakurrak ardixak barruan sartu biharko ditxu eta gero aterra". Jose Antonio Arrillaga eta berak hazitako txakurrak benetako txapelduinak dira. "Txakurrak, ona izateko, arrazakua izan bihar dau eta ondo en-

trenauta eon". Jose Antoniok lau aldiz irabazi du Oñatiko txapelketa, "nahiz eta 93. urtetik jun gabe nauan". Txapelketa honez aparte, beste askotan ere hartu izan du parte eibartar honek. "Txikik lau urte dakaz eta 17 txapel irabazi ditxut berakin; honen amakin 18 eta lehenao euki naban beste batekin 31 txapel".

Erakustaldiaz aparte, jai-giro aparta egoteko moduko egitaraua prestatu dute sanmigeldarrek. 1,600.000 pta.ko aurrekontua dute jaiiek. Ostira-lean Egan taldearekin erromeria izango da eta igandean Trabuko taldearen jarduna. Ohi denez, ez dira falta izango ididemak, trikitia, pilota partiduak eta bolo txapelketa, besteak beste.



100.000 placko saria Elgoibarko V. Komiki Lehiaketaren irabazlearentzat

koe Komiki Elkartek bi **Kal**rteti k behin komiki lehiaketa antolatzen du. Aurtentzen lehiaketaren bosgarren edizioa izango da. Ohi bezala, edonork har dezake parte lehiaketan, bai bakarka bai taldeka. Gai librean, istorioek argitaratu gabeak eta orijinalak izan beharko dute. Lanen formatoa 18x24 em-takoa izango da edo proportzionala. Luzerari dagokionean, komikiak 4 orrialde izango dituzte gehienez. Modalitate bakarra izango da, zuri-beltzekoa, tonu grisak barne.

Sariak ez dira nolana-hikoak.



Irabazlearentzat 100.000 pta. daude. Bigarrenarentzat 70.000 pta. eta hirugarrenak 40.000 pta. jasoko ditu. Euskarazko komiki onenarentzat 30.000 pta.ko saria dago. Edozein argibide edo informazio jasotzeko 74 43 44 zenbakira dei daiteke.

Lanak Elgoibarko Kultur Etxean aurkeztu behar dira urriaren 13a baino lehen.




Ikasle txinatarrei ongi-etorria

Pasa den astelehenean egin zen Udaletxean Erreminta Makinaren Institutura etorri den ikasle txinatarrei ongi-etorriko ekitaldia. Bertan Guillermo Garate alkatea, Alberto Ortueta AFMko zuzendari nagusia eta IMH ikas-tetxeko ordezkariak izan ziren. Txinarren delegazioaren eta herriko ordezkarien ongi-etorriko hitzen ostein opariak trukatu zituzten elkarren artean. Ekitaldi amaieran, ohitura den bezala, guztiak argazkirako prest agertu ziren. Talde hau 14 ikasle osatzen dute. Huez gain, itzuitzaile bat ere badago eta taldeko arduradun bat. IMHra datorren seigarren taldea da hau eta, aurreko guztiak bezala, kontrol numerikoaren inguruko formazioa jasoko dute IMHn. Txinatarrak azaroaren 29ra arte izango ditugu gure artean.

Paco Egea elgoibartarra Ekonomia sailburu izendatu dute

Asteartean ezagutarazi zen Paco Egea elgoibartarm Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Sailburu izendatzen zutela. PSE-EE alderdiko Batzorde Ejektiboaren erabakiz, Ramon Jauregik betetzen zuen kargua Egearen ardurapekoa izango da aurrerantzean. Duela 47 urte Zaragozan jaio eta Elgoibarrera ezkondu zen. Donostian injinerutza tekniko industrialak ikasi zuen eta Arrasateko Caja Laboral-Euskadiko Kutxan jardun zuen lanean politikan sartu aurretik. Jaurlaritzako sailburuorde izan baino lehen, Gipuzkoako Aldundian egin zuen lan Ekonomia Saileko zuzendari moduan. Sindikatu, enpresari eta Administrazioak etengabe-



ko lanbide heziketaren inguruan lortu zuten lehendabiziko akordioaren bultzatzailea izan zen Egea.

Ramon Jauregik proposatu zuen Francisco Egea sailburu kargurako. PSEren barruan baina independente bezala, Egea hिलaren 30ean izendatuko dute ofizialki Ekonomia Sailburu.

Paco Egeak duela gutxi azaldu zuen bezala, ordu estrak egin beharrean lanaren banaketaren aldekoa da, denbora libre hori aisialdirako izanik. Sailburu izendatu berriaren ustetan, ekonomi jarduerak ez du nahtkoa lanpostu sortzen. Horregatik defendatzen du lanaren banaketa.

• Fuegirolara joateko deialdia irekita

Jubilatu Etxeak jakinarazi nahi du Fuegirolara egun batzuk pasatzera joan *nahi* duten guztiek izena emateko aukera izango dutela plaza libreak geratzen baitira. Interesatuak Jubilatu Etxera zuzendu behar dute Iehenbailehert, irteera urriaren I In izango baita. Bestalde, datorren urriaren 18an Gipuzkoako *Jubilatu* Eguna ospatuko da Donostian. Nahi duten guztiek Belodromoan izango den bazkarira joateko aukera izango dute. Izena emateko Jubilatu Etxera jo. _

LA
RUN
BA
TE
RO

Antolatzaldea: Elgotharko tzarrako ATXUTXIAMIKA Begirale Taidea - Laguntzaileak: Elgoibarko Udala eta Eusko Jaudautza

i. ex. ila as 8 t /gAtt TAZDE1,efit7/1/

HeziKic

txikitatik landuz

Opor Inzeak ioaro ondoren iritsi jadanik irerilrr eta berarekin tera baita ikasturte berria ere. Duela IS elun eskas .1lendaroko Ikastolak atea ireki zituen. Iilabete honetako errepurtaia Ikastolako eskaini nahi izan bi urteko haurivi, hain ere. Ilorretarako. Ikastolara lertuntu ltara 11, We haltekill lij-hIS111 tildere-ño<1 elen iktirriZkehtll.9 bat i.:7(11ent.

Orain dela hiru urte inguru hasi ziren bi urteko haurrak Mendaroko ikastolan. Arratek kontatu digunez, talde murrizta osatzen zuten hurrek eta hiru urtekoekin elkartu zitzuten. "Aurten gauzak aldatu egin dira eta talde bakarra osatu dugu gela batean. Honela, batetik, bi urtekoen gela dago eta, bestetik, hiru urtekoak daude".

Umeen adin txikia ikusita eta gurasoen lasaitasunerako, bilera bat egin zuten andererioek gurasoei informazioa eskaintzeko

asmoz, "bileran komentatu genuen "hau txikiei flexibilitate osoa emango zitzaiela eta ez zezatela pentsatu umeak behartuak daudenik hasieratik ordu-tegi osoa egitera".

Goizeko ordutegia 9:30etatik 12:30etara da eta arratsaldekoa, berriz, 14:30etatik 16:30ra bitartekoa. Arrateren esanetan, "bileran esan zitzaian gurasoei haurra nahi zutenen ekar zezaketela. Siesta egitera ohituak dauden haurrak ez dira etortzen arratsaldez. Goizez, aldiz, batzuk 9:30etart hasten di-

ra eta beste batzuk 11:30etan".

Lehen eguneku negarrak

Ez da batere erraza umea amarengandik banatzea. Ikastolara joaten diren lehen egunean negarra ez da ia inon falta izaten. Hortaz aritu gara solasean Arraterekin eta umeak nola despistatzen dituzten azaldu digu, "hasieratik komentatu nien gurasoei ez zela beharrezkoa umea beldurrez ekartzea Ikastolara. Lehenengo egunetan leihoa irekita uzten genuen eta umeak amarengatik galdetzen zuenean kanpoan zegoela esan eta ama gelan sartzen zen. Halere, hau hasierako egunetan bakarrik egin genuen gero ez baita arazorik izan. Gehienak gustura etortzen dira".

Haurrak hain txikiak izanik jostailuz betetzen dituzte klaseak eta jolasean aritzen dira Arrateren hitzetan oso garrantzitsua da txikitatik oinarritzko zenbait gauza irakastea, "Gabonak arte Ikastolan egoten ohitu behar dira. Batez ere hizkuntza lan-tzea da gure helburua. Ume batzuk ipuin hitza entzun orduko ipuina entzuteko eseritzen

Aurten sortu da 2 urtekoen lehen taldea.



Orduegia flexiblea da haseeran.



dira. Beste batzuk, aldiz, geldu geratzen dira. Berehala igartzen da etxean nortzuk dauden ohituta gauza ba-tzuetara eta nortzuk beste batzuetara. Eskulanak egiten ohitzea ere oso inportantea da eta sikomotrizitate saioak ere egiten ditugu, umeek kirol piskat ere egiteko". Ekin-tza horiek egiteko jostailu

desberdinez baliatzen dira: sokak, txirristarak, oreka lantzeko gauzak...

Tineen arteko liskarrak.

Umeak dauden tokian normalena da atximurkak, ostikadak eta antzeko arazoak egotea. Are gehiago haurrak oso txikiak direnean. Arratek komentatu digunez, egunero izaten dira

Haurrek jolasen bidez ikasten dute.



horrelakoak, "beti dago norbait haserraten dena eta erabat burugogor jartzen dena. Edo ume batek beste bati atximurka egin diola. Orduan, banatu egiten ditugu eta hori ez dela egiten esaten diegu, abesti bat kantatuz umeak lasaitzea lortzen du gu I arik".

Liskar hauek kenduta Arrate oso gustura dago

umeek izan duten erartluznarekin, "harrituta gaude, bai irakasleak baita gurasoak ere. Ez genuen horrelako erantzun onik espero. Datorren urtean berdin jarraitzea espero dugu, beti ere umeen kopuruarekin jokatu behar dela kontuan izanik. Aurten talde polita sortu da eta etekina atera diezaiokegu honi".

Pij^o 11.1



IRATI MENDIKUTE

2 urte


"Gustura etortzen naiz eta ez det negar egiten. Neri txanpon kaxarekin jolastea gustatzen zait. Nere lagunak Josune eta Josu dira. Motxila haundia ekartzen det eta ipuinak irakurtzen ditut".



JOSU GARATE

2 urte

"Pozik etortzen naiz eta motxilan ekartzen ditut gailetak. Lagun asko ditut eta denak dira nere lagunak. Asko jolasten det eta koilarrak egitea da politena".



MARIA JOSE LENIZ

38 urte

"Lehenengo egunian pena piskat eman zian baina lasai gelditzen naiz umea denekin dagoelako konforme. Gainera, hemen etxian baino hobeto dao, danetik dakalako eta lagunekin daualako. Arratsaldian ez det ekartzen siesta egiten duelako eta gabian goiz oheratzen det inportantia dalako deskantsatzia Ikastolan ondo egoteko".

Euskal bizikleta

Marmitako lehiaketa

Datorren ostegunean, urriak 2, arratsaldeko 5etan, Deba Beheko jubilatuen arteko Marmitako Lehiaketa egingo da Mendaroko Goñati pllotalekuan. Bertan 10 bikotek hartuko dute parte, horietako bakoitza eskualdeko Jubilatu Elkartetako ordezkaria izanik. Antolaketa Lagun-Betikoak elkartearen esku dago, Mendaroko Udalaren laguntzarekin.

Ordenautza-fiskalen aldaketa

Ostegunean egindako Udalbatzan, udal zergak, tasak eta prezio publikoak erregulatzeko ordenantzen aldaketak onartu ziren, 1998an indarrean jarriko direnak, hain zuzen ere. 1997. urtearen arabera izango duten aldea I.P.Caren igoerarena izango da, hau da, %2a eta eragina izango du ondorengo zerbitzuetan: ura, zabor bilketa, azpiegitura hidraulikoen gaineko kanona, hileta zerbitzuak eta frontoia.

Aerobic eta gimnasia ikastaroak

Iaz izandako harrera ezin hobea ikusita, aurten ere Elgoibarko Ibai Gimnasioak Mendaroko Udalaren laguntzarekin, Aerobic eta Gimnasia ikastaroak emango ditu Mendaron. Ikastaroak datorren asteazkenean, urriak 1, hasiko dira eta inskripzioak lehenbiziko klasean egingo dira.

Jubilatuen bidaia Errioxara

Datorren asteartean, hilak 30, Mendaroko jubilatuek Errioxara joateko aukera izango dute, Lagun Betikoak elkarteak antolatutako bidaian. Goizez Logroño hiriburua bisitatuko dute eta bazkaria Najeran izango da.

Duela egun batzuk Mendaroko alkateak eta Euskal Bizikleta Kirol Elkartearen ordezkariak hitzarmen bat sinatu zuten eta horren arabera, 1998ko Euskal Bizikleta nazioarteko txirrindularitza lasterketa-ren etapa amaiera bat eta hurrengo

eguneko etaparen hasiera Mendaron izango dira. Lasterketa 1998ko maiatzean izango da, U.C.I.k esandako egunetan. Gaur egun txirrindularitza munduan dauden kirolari ospetsuenek parte hartuko dute.



Etxebizitzen eraikuntza

Etxebizitzen eraikuntzak eten-gabe dihardu Mendaroko Herriko Enparantza inguruan. Dagoeneko beste 12 etxebizitza kooperatiban eraikitzeko baimena eman du az-

ken Udalbatzak. Aldi berean, eta buzoneatu duten propaganda ikusita, badirudi Etxeberriko sailean ere etxebizitzak egiten hastera doazela oso prezio onean.



KiliBaRREN

Koiaoratzailleak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

22 urte ditu eta ekainean amaitu zituen Leioako Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak. Halere, Lorea Perez, De Albenizek dagoeneko dexteneko esperientzia dauka komunikabideetan. Sei hilabetez bekadun izan zen Euskadi irratian. Ondoren, ETBrako bigarren beka bat lortu zuen eta "Bertatik Bertara" saiorako egin zuen lan. Aurtengo udan "Jaiak 97" programan kazetarai lanak egiten ikusi dugu denok kamara aurrean eta orain "Super Bat" saioan hasi berri da.

LOREA PEREZ DE ALBENZ

"Jendiari telebisivan urtetzia gustatzen jako"

—**Aurpegi ezaguna bihurtu zara denbora gutxian, Lorea.**

Bai, pasada bat da telebistan ateratziak eitzen dabana. "Jaiak 97" programan lan eitxiak pertsona ezagun bihunzen zaitxu eta kalia danetik aguantau bihar izaten dozu: jendiak denbora guztian gauzak esaten, autografuak finnatzeko eskatzen dizue...

"Bertatik Bertara" saioan hasi zinen.

- Bai. Lelengo informatibuetan bi hilabete ein nitxun eta gero "Bertatik Bertara" programara pasau ginaran. Danetik eitzen gendun, erreportaia txikixak, kale inkestak, irudixak editau... Oso gustura egon nitzan.

—**Jairik jai uda osoa. On-do?**

- Jende guztixak gauza berdina esaten dau. Ze ondo

jaixetan egun guztia! Nik hiru egunetik behin eitxen nabian lan. Egun osua lanian eta gero, gabeko 10ak alde-rra lurretara, irudixak editatza. Goizeko 3ak baino Iehen ez gendun arnaitzen. Juergarik, beraz, bat ere ez!

Aukera ona izan al da?

Bai, asko ikasi dot. Harreman zuzena dakazu jendiakin eta lana etengabekua izaterakuan esperientzia haundixa hartzen da.

—**Zer moduz kamara aurrean?**

- Antzerkixan ere nabil eta jendian aurrian berba eitxera ohitzen zera. Kamara aurrian jartzia errezaua da ze ez dozu jendian aurrian berba eitxen eta kamariakin harreman ona badakazu, konfiantzia badao... Askotan ez zera konturatzen gero programia jende askok ikusiko dabala baina hobeto da

ze, bestela gauza mordo bat igual ez genitxun eingo.

—**Jendeari gustatzen al zaio telebistan ateratzea?**

- Dudaripe! Igual lelen-go ezetz esaten dabe baina segitxuan igartzen da danori gustatzen jakula. Jende asko etortzen zan urtetzia nahi zabala esaten.

—**Jaiak 97 amaitu eta Super Bat-eko aukera atera zaizu.**

- Bai. Suerte haundixa euki dot. Super Bat eta Jaiak 97 produktora berdina ei-txen ditxu eta kazetari lana eskaini zien. Umiekin berba eitxia da nere lana, gauzak etaratzia, desinibitza... Gero irudixak montau... Oinguan ez naiz kamara aurrian urtengo eta la-saixo eitxen dot lan.

—**Prentsa, irratia ala telebista nabiago?**

Lehen irratixa gustatzen jatan gehixen. Egixa esan asperganixena prentsa iruditzen jata baina uste dot politxena gauza desberdinak eitxia dala.

—**Edozein saiotan ikusten al duzu zure burua?**

Informatiboetan ez bada, bai.

—**Telebistako izar handi bihurtua ikusiko al zaitugu noizbait?**

- Ez da nere asmua, askoz apalau naiz. ETBn hasi nitzanian famoso guztieri begira geratzen nitzan. Oin aldrebes pasatzen jata, jendiak neri begiratzen dia. Jendiak produktua kontsumitzen dau, askotan ez da konturatzen pertsonen atzian langiliak daudela eta imagin bat ematen dozula. Gainera, oso famosuak dianak ez dake bizitza pribaturik eta nik ez dot holakorik nahi.

EESTEOK ESANA

"Desertuan oasis bat aurkitzeko kapaza izango litzake eta, era berean, bera ere oasis bat da
MIKEL CORNEJO, laguna



Elgoibartik Mundu Zabalera

Aurreko astean esan bezala, laster batean sekzio berri bat jarriko dugu tnartxan. Sekzio honek bi atal izango ditu:

1- Aste batean munduan zehar bizi diren elgoibartarrak ezagutuko ditugu: noiz egin zuten alde Elgoibartik, zergatik joan ziren, zer egiten ari diren bizileku berrian, etab. Atal honi "Elgoibartarrak Mundu Zabalean" deituko diogu.

2- Hurrengo astean, berriaz, kanpotik Elgoibarrera bizitzera etorri direnak ezagutuko ditugu: noiz etorri ziren, zergatik, noia noldatzen diren herrian etab. Atal honi "Mundu Zabaletik Elgoibarrera" deituko diogu.

Atal biak txandakatu aterako ditugu. Sekzio honek arrakasta izateko, zuen laguntza denigorezkoa dugu. Deitu 74 41 12ra eta bertan eskertuko dizugu.

Consuelo isasi Irusta

(1921-1980)



- 1921eko maiatzaren 30ean jaio zen Altzolako Sakristau etxean. Etxeari izen horrekin deitzen zioten Consueloren aita Altzolako elizako sakristaua zelako eta familiarekin bertan bizi zelako. Zazpi anai-arreba izan ziren, berau bigarrena.
- Gaztetako ikasketak Altzolan eginda, lehenengo urteak apartekorik gabe igaro zituen eta oso gazterik Donostiara joan zen zerbitzu lanak egitera urte batzutan.
- Neska izan arren, trebetasun handiz eta oso ondo jokatzeko esku pilotan.
- 1946an Candido Prietorekin ezkondu zen eta 9 seme-alaba izan zituzten. Donostian urte batzuk igaro ondoren, 1957an Elgoibarretara etorri ziren, senarraren lana zela eta.
- Consuelo eta bere ahizpa Juanita fama handikoak izan ziren plantxatzen Santa Ana kalean zuten etxean. Hura artea ahizpck zutena mota guztietako erropak plantxatzen, bai Elgoibarko bai eta erbesteko jendearentzat ere.
- Familia dexente hazita zuela 1968an Altzolako Albizkoa hotela hartu zuen familia osoak eta bertan egin zuten lan. Jendea gustura joaten zen eta mus txapelketak ere antolatzen zituzten.
- Consuelo sukaldari ona izan zen, sinpatika, atsegina eta jator'a. Lana egitea gustatzen zitzaion eta jendeak ondo hartzen zuen. Horetela utzi arte lan egin zuen bertan.
- Altzolan eta Elgoibarren oso ezaguna zen bere alaitasunarengatik.
- Sinesmen handiak zuen. Bere zaletasune artean euskal jaiak eta, batez ere, euskal bertso saioak zeuden.
- Oraindik sasoi ona zuelarik 1980ko maiatzaren 19an hil zen 58 urte zituela.

Juanito Gorostiza

**HERRI-GAIN
ERRETEGIÀ**

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

**b4. ZENTRO
IVA PSIKIMEDIKOA**

Gida eta arma baimenentzako azterketak

Goizez: 10:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-17:00
Ostiral arratsaldetan itxita

Ariketza Zubia, 1 beheha Tel./Faxa: 20 05 01 EIBAR

atot4 0. 1f114 d. C*90.

Oiaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 74 42 54 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



Aste honetako erretratua benetan zaharra da. Iñaki Gabilondok ekarri digu eta hark esandakoaren arabera, 1947an atera omen zuten, duela 50 urte.

Aita Agirre plazan futbol txapelketak antolatzen ziren eta ordukoa da. Gazte Alaiak taldekoak ziren argazkian ageri zaizkigunak eta finaleko txapeldunak izan omen ziren, Desastre


taldeari 3 eta 2 irabazi baitzioten.

Orduko arropa, oinetako eta baloiek ez zuten, ez, traza handirik egungoekin.

Gazte Alaiak taldea osatzen zutenak hauek dira:

Tente, ezkerretik hasita: Sabin Argarate, Jesus Rementeria, Felix Aiesta, Joakin Gabilondo (t), Xabier Argarate eta Iñaki Gabilondo.

Makurtuta: Bixente Zubiaurre, Xabier Gorostiza, Inazio Mugerza, Iñaki Gorostiza eta Iker Argarate.



San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

OIERKI IGOGAILUAK

■ = Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

Le (943) 20 35 15 ob ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

• Hiru futbol partidu astebururako

Club Deportivo taldeek joan den asteburuan jokatu zituzten partiduen emaitzak dira honako hauek:


Gimnastica 0 - **Haundi 1**
 Soraluze 2- **Pedrusko 2 (2. erreg.)**
Elgoibar 1- Anaitasuna 2 (**Oho. jub.**)
Elgoibar 2- Usurbil 1 (**1. jub.**)
 La Salle 4 - **Elgoibar 2 (Kad.)**
Elgoibar 2 - Trofeo 3 (**Neskak**)

Larunbatean eta igandean Mintxetako futbol zelaian hiru partidu jokatu dira. Bi larunbatean eta bat igandean. Hauek dira:

Larunbata, 27
12:00 Elgoibar - Aitzgorri.
 (**Kadeteak**)
17:00 Haundi - Valladolid
Igandea, 28
16:00 Elgoibar Zarautz (**2. erreg.**)

Zuhaitz Gurrutxaga, brontzezko domina Espainiako futbol selekzioarekin

Zuhaitz Gurrutxagak, 16 urteko futbolari elgoibartarrak, Egiptoko 17 urtez azpiko munduko txapelketan jokatu du espainiar selekzioarekin. Astelehenean itzuli zen Egiptotik 28 egun bertan egin eta gero. "Lehenengo egunetan entrenatzen eon ginan. Mundialian parte hartzen doten lehen aldixa izan da eta kalidade haundiko futbolariarekin jokatzeko aukera izan dot", aitortu digu Real Sociedad klubeko jubenetako jokalaria. Mundiala baino lehen, Zuhaitzek Europako txapelketa jokatu zuen selekzioarekin. "Europeuan txapeldun geratu ginan. Ondoren, mundialian, Brasil, Afrika, Mexico, Mali, Zelanda Berria eta Egiptoko taldeen aurka jokatu eta gero finalerdietarako sailkatu ginan". Finalerdiko partiduan, Gana-koen aurka galdu egin zuten. Hortaz, 3. eta 4. postuetara-




Zuhaitz Gurrutxagak mudiakan hartu du parte.

ko sailkapen partiduan Alemnaniako selekzioa izan zuten aurrez aurre. Oraingoan espainiar selekzioak irabazi egin zuen eta, beraz, hirugarren postuan geratu ziren.

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri **DEBABkra Udal Euskaltegien**

Mankomunitateral



**MATRIKULA
 EGITEKO AZKEN
 EGUNAK**

**1997-98 IKASTURTEKO
 EUSKARA IKASTAROAK**

Erreleboetako jendearentzat taldeak goiz eta arratsaldez

EGA titulua iortzeko ikastaroak
 (Atariko Proba euskaltegian bertan)

Hizkuntz perfilak

Prezio bereziak!!

8.000 pta. ikastaro osoa

**"DEBABA"
 UDAL EUSKALTEGIEN
 MANKOMUNITATEA**

Natarroa enparantza, 2 ELGOIBAR
 tel: 74 27 31

Txurruka enparantza, 1 MUTRIKU
 Tel: 60 30 94

Ifar-kalea, 12 behe DEBA
 Tel: 19 22 36

It>

EUSKALTEGIAK

Herriko Eskalada Txapelketa antolatu da datorren urriaren 4rako

Udal Kirol Patronatuak, Morkaiko Mendizale Elkartek eta Euskadiko Mendizale Federazioak Eskalada Txapelketa antolatu dute herrikoentzat datorren urriaren 4rako. Olaizaga Kiroldegiko rokodromoan izango da txapelketa goizeko 10etatik aurrera.

Txapelketa honetan Elgoibartarrak soilik hartu ahal izango dute parte. Bi maila egongo dira: gaztetxoena 10 urtera arte eta 10 eta 13 urte bitartekoak) eta helduena (14 urtetik gorakoak). Goizeko 10etan sailkapen fasea hasiko da bi mailetan, gaztetxoena mailan eta helduen kategorian. Goizeko sailkapen frogen ostean, arratsaldean finalak izango dira. Dударik gabe, ikusmin handiena arratsaldeko finalek sortuko dute.

Ramon Mujikak, Udal Kirol Patronatuak zuzendariak adierazi bezala, "gure asmoa herritarrek parte hartzea da, helduek batez ere, beraiengan pentsatuz antolatu baitugu norgehiagoka. Gaztetxoak ere parte hartzera animatu nahi ditugu, nahiz eta badakigun ez direla sekula konpetizioan ibili". Udal Kirol Patronatuak zuzenda-

riaren ustetan, "tristeia izango litzateke txapelketak erantzun kaxkarra izatea. Zer harrera duen ikusi eta gero, datorren urtean berriz antolatu ala ez erabakiko dugu".

Esperientzia negatiboa

Elgoibarren eskalada txapelketa ugari antolatu izan dira. 1992an, rokodromoan inauguratu zenean, herriko eskaladazaleekin erakustaldia egin zen. Hurrengo urtean, 1993ko urtarrilean, Deba Beheko txapelketa antolatu zen.

19 lagunek hartu zuten parte, tartean gaur egun jubentzen munduko txapeladunordea den Patxi Usobiaga eibartarrak.

Elgoibarrek eskalada txapelketen antolakuntzan esperientzia bazuela ikusiz, 1993an, 1994an eta 1995ean, Euskadiko Eskalada txapelketa antolatu

zen. "Lehen bi urteetako esperientzia oso ona izan zen". Baina Ramon Mujikak esan bezala, "95ean gauzak okertu egin ziren". Bizkaiko eskaladazaleen jarrera kritigarria iruditu zitzaizkien antolatzaileei. "Txapelketaren maila oso altua zela ikusiz, dirua eskatu ziguten parte hartzeagatik". Orduetik aurrera Elgoibarren ez da Euskadiko txapelketarik antolatu.

Urriaren izango den txapelketarekin eskalada alorrean Elgoibarrek daukan esperientzia berreskuratu nahi dute.



Lehen aldiz egingo da herrikoentzako eskalada txapelketa.

KIROL ALBISTEAK • KIROL ALBISTEAK

• Mugerza krosa Internet sarean

1998ko urtarrilaren 4an izango da Mugerza Krosaren LV. edizioa. Ego-Toki Elkarteko antolatzaileek lasterketa promozionatzeko kanpainari ekin diote. Prestatu dituzten gauzen artean, Internet sarean Web orri bat diseinatu dute, edozein pertsonak sarean sartuz gero, bai lasterketari bai Elgoibarri buruzko datuak eta informazioa jaso dituzten: historia, anekdotak, lasterketako txapeldun guztiak, ibilbidea, etab. Ego-Toki eta Internet-eko hornitzaile den Sofdan enpresa elgoibartarraren arteko akordioari esker sartu da Mugerza ICrosa Internet sarean. Orriaren diseinua Jose Maria Kortak eta bligo Guerra eibartarrak egin dute. Internet-eko helbidea: <http://www.softlan.eornkross-mugerza>. Posta elektronikoa: egotoki@softlan.com.

• Ehiza tuapelketa urriaren 4an

La Unin Elkartek ehiza txikiko modalitateko txapelketa antolatu du datorren urriaren 4rako. Partehartzaile bakoitzak txakurra eta epailea eraman beharko ditu. Izena emateko La Unit5n elkartera agertu goizeko Setan txapelketa egunean bertan. Izena lehenago eman nahi duena gaueko 9etatik 11etara bitartean joan daiteke elkartera.

• Atletismoko entrenamenduak

Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak datorren urriaren lehen hasiko dituzte entrenamenduak. Lehe Hezkuntzako 3. mailatik aurrerako neska-mutuek **Mir** txetan eman ahal izango dute izena astelehen, asteazke eta ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean.

RI 2L

Marrazo hortzak

Aurreko astean kontatu geizuen bezala, ohikoak ez diren bi talde aurkeztu nahi genituzke: "Gutariko Bat" eta "Portobello Bones". Bera herri-tik datorkigun taldea dugu "Gutariko Bat", bost lagunez osaturiko taldea, hain zuzen. Frantiatik datorkigun hirukotea da, berriz, "Portobello Bones". Banandutako single bat argitaratu dute, hard-core experimental jorratzen dutelarik. Erreferentzia bezala "Shellac", "Jesus Lizard" edo "Guzzard" taldeak har ditzakegu (ezagutzen dituzuenoi, zorionak). Doinu gordinak, erritmo biziak eta atmosfera mikatsak aurki ditzakegu abestietan (denak euskaraz). frantziarrak bikainak dira, baina "Gutariko Bat" taldeari buruz izugarriak direla esango hagenu, motz geratuko ginatete. Bai diskan bai zuzenean, "Esan Ozenki" zigiluaren edozein talde burua makurtzera behartuko luke boskote honek. Bazen ordua.

Iban Urizar eta Julen II



Oier eta Arkaitz Balzob Deba Beheko trikiti txapelcunak

"Txapeil gatiek ematen dabe poz haundixa"

Oier eta Arkaitz Balzolak txikiak zirenetik jotzen dute trikitrá. Oierrek soinu eta Arkaitzek panderoa. Betidanik ezagutzen dute soinuaren dohza, aitona soinu-joka baitzen. Trikitia gustatu eta ikasten hasi ziren. Orduetik txapel ugari frabazi dituzte. Ataungo Trikiti Txapelketa hiru aldiz jarraian irabazi dute eta hilaren 14an Arraten izan zen Deba Beheko Txapelketan ere irabazleak izan ziren. Azken honetan hamabi aldiz izan dira txapelcunak. Arkaitzekin egon gara "Balzola anaiek" hainbeste txapel irabazteko sekretua zein den deskubritu nahian

- Bi igandetan jarraian txapelcun.

Bai. Hilan zazpitan Ataungo txapelketan izan ginan. Oier bakarrik jun zan 16 urte-tik beherakua zalako; Oierrek 16 urte dakaz eta nik 18. Adin horren barruan sartzen ez naizenian beste panderista bat juten da berakin. Arratekua pasa dan igandian izan zan eta Deba Behekua izan arren, Ataungo jendia ere bazuan. Gertatzen dana da gazte jendiantzako txapelketa oso gutxi eoten dila eta Euskal Herri osoko trikitilarixak hartzen dou parte.

- Zein da hainbeste txapel irabazteko sekretua? Ondo jotzia izango da! Eta kantuan ere ondo eitia.

- Kantatu ere egiten duzue? - Bai, jo eta kantau. Lehiaketa bakoitzian jurauak ipintzen dau zenbat pieza jo bihar dian. Arraten adibidez, hiru pieza zian: lehenengua trikitixa edo porrusalidia; gero fandangua edo arin-arina eta azkenian poupourrixa, hau derrigorrezkua da.

- Zein da guztien artetik zailena?

- Poupourrixa. Pieza mordo bat lotu bihar dia bata bestiak. Ezin da etenik ein. Adibidez, fandangotik pasodoblara pasau bihizu eta ondo lotuta jun bihar dia.

- Piezarik konposatu duzue sekula?

- Zatiak bai, baina pieza osuak ez. Normalian kantu popularrak jotzen ditxugu. Egixa esan, ez gera sekula pieza osuak eitzen saiatu baina maila haundixa bihar da horretarako.

- Urtean zenbat aktuazio izaten duzue? - Dozena inguru. Erromerixetan

ibiltzen gera batez ere, San Pedron, San Migelen, Azpeitin, Soraluzen, San Bartolome jaixetan, Santa eskian... edo bazkariak alaitzeko deitzen digute. Hala ere, guretzat inportantiena txapelketak dia. Urtian zihar hoiek prestatzen ahalegintzen gera. Bost bat pieza lantzen ditxugu urtian, txapelketan joko ditxugunak.

- Eta ahotsa? Lantzen al duzue ahotsa? - Bueno. Txapelketak daozenian zaindu ein bihar izaten da. Parranda gitxi einda ahal dala, hotzik ez eran... eta eguero zeozer kantau.

- Ordaintzen dutenarekin gastuak pagatzerik bai? - Batzuetan hori ere ez. Altaboz berrixak eta soinu berrixak erosten, etab. gastu haundixa eoten da. Guria hobby bat da.

Gozategi, Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider, Tapia eta Leturia... Zein gustukoen? Dudarik gabe Tapia eta Leturia, onenak dia. Pieza zaharrak hobetuen jotzen dituxenak dia; eta berrixak ere bai. Eta nahi ditxuzten pieza berri guztiak ateratzeko kanpazidadia dake. Trikitixak hartu daban bide berrixa asko gustatzen jaku.

- Trikitia jo bai, baina dantza? Hori ez. Ez Oier ez ni, ez gera zaliak.

- Txapelak irabaztera ohituta dagoeneko. - Oierrek esaten daban bezela, txapel danak desberdinak dia eta danak ematen dabe poz haundixa.



azkue



gure

"Ehundegi bat berritzen ibili naiz udan"

Auzolandegiak oso modan daude azken urteetan. Gaur egun, udakorporren atarian, gazte asko eta asko informazioa jaso eta aukeratutako auzolandegitenta izena ematen dute. Saioa Rodriguez horietako bat dugu. Koadrila osoa egon da batean eta bestean lanean, batzuk Euskal Herrian, Estatuatz zehar beste batzuk eta atzerrian ere bat edo beste. Saioa Zegaman izan da, Altzibar auzolandegian ehundegi zahar bat berreraikitzen.

— **Kuadrila osoa auzolandegietan, beraz.**

Bai, batzuk Alemanian egon zian zahar batzuei laguntzen; beste batzuk Jakako herri txiki bat goitxik behera konpondu eta berritzen... Danetik piskat.

- **Zu ehundegi zahar bat garbitzen eta berreraikitzen ibili zara.**

Bai. Jun dan mendeko tellerixa bat zan. Gu ailegau ginanian ez zan ezer ikusten. Zuhaitzek eta sasiexek dana tapatzen zebeu eta gure lana izan zan haura garbitxu eta txukuntzia.

— **15 egun ez al dira gutxi?**

- Dana amaitzeko bai. Gainera, 20 pertsona jun bihar ginan eta azkenengo momentuan 8 ez zian agertu. Beraz, monitorien, teknikan eta gure artian moldatu bihar izan ginan. Zuhaitzak moztu eta paretik kendu, sasixak ebaki...

Lan handia?

Bai, azkenerako oso nekatuta amaitxu gendun. Gainera, hiru muttil bakarrik zeuden eta pisu haundixa eramane bihar izaten gendun batetik bestera. Hala ere, merezi zaban.

Aurretik sekula egin al duzu horrelako zerbait?

- Ez. Nik Arte Ederrak ikasi nahi

naban hasieran baina gero zeozer praktikuaua hobe izango zala eta IMHn hasi naiz aurten. Arkeologia eta holakuak oso interesantiak iruditzen jataz eta horregatik eman naban izena Zegamako auzolandegixan, tellerixa bat berritzia politxa izango zalako.

— **Igarri al zenuen alderik lehenengo egunetik azkenera?**

- Bai. Ezer ez igartzetik, oin bidetik ere ikusten da tellerixia. Harriak garbitxu genduaz banan ba-

- Goizeko 8etan jaiki eta gosalduta gero teknikuak etortzen zan furgonetiakin. Auzolandegixak 6 km.razauan eta teknikuakin juten ginan. Lanian ordu batak arte edo egoten ginan eta gero etxera. Dutzau, bazkaldu eta arratsaldero antolatzen zian gauza desberdinak.

— **Esaterako?**

- Zeramika museuak ikusi, kobazuluak, eskalau ere ein genduan... Denbora libiria ez zakagun ze arratsaldero zakagun plan bat antolatuta

baina lana berez goizian bakarrik ein bihar genduan. Oin, batzutan, astuna eitxen zan arratsaldekua ze igual gauza batzuk nahiko aspergarriak eitxen zian eta gainera nekatuta egoten ginan.

— **Espeleologia ere egin zenuen.**

- Bai. Kobazulo batera jun ginan eta zuluetatik sartu linternekin.. Danak ez ginan sartu baina neri holako gauzak asko gustatzen jataz eta segitxuan animau nitzan.


- **Hamabi lagun berri egin al dituzu?**

- Egixa esan azkenerako bi talde bezela sortu zian, normala da. Hala ere, bueltan ein gendun afari bat danak batera eta San Bartolomietan etorri zian batzuk nere etxera. Baina ez dot uste

berriz ikusiko ditzudanik.

- **Errepikatze moduko esperientzia izan al da?**

- Bai. Datorren urtian ez badakat beste zeozer behintzat, auzolandegi batera jungo naiz.



nan... Politxa geratu da. Gero, pentsatzen dot lanekin jarraitxuko dabela eta dana bihar dan bezala Iagako dabela.

- **Nolakoa zen egun bat Zegaman?**

**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbufategia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulardzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UOLA

Euskara Zerbitzua	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETKEAK

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre	74 02 67
Ezenarro (Meka) ..	74 44 80
Ikastola	74 44 41
L.H.I.	74 44 80
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco .	74 40 73
El Correo Español .	74 10 82
Egin	108421
Zazpiki irratia	74 34 74

**26
ostirala**

22:15 ZINEA
"Airbag"

**27
larunbata**

12:00 ZAZPIK Iren
BILERA
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
"Airbag"

**213
igandea**

8:00 TOLOÑORA
TRABESIA

Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko
M.E.

10:00 PERRETXIKO
LEHIAKETA

13:00 SARI
BANAKETA
Plaza Handian
Antolatzailea: Karakate
Mikologia Elkartea

19:30-22:15 ZINEA
"Airbag"

**2
asteleena**

22:15 ZINEA
"Airbag"

**3
ostirala**

22:15 ZINEA
"El secreto de los Ahbot"

**11
NE
A**



Zuzendaria: Juanrna Bajo Ulloa
Antzezeak: Karra Elejalde, Fernando Guillén, Alberto San Juan.

Airbag (1990)

Ezkondu aurreko azken parrandan, Juantxok (Karra Elejalde), Conrado (Fernando Guillen) eta Pacok (Alberto San Juan) putetxe batean amaituko dute eta bertan Juantxori ezkon-eraztuna ahaztu egingo zaio emagalduta baten ipurdi zuloan. Bitxiaren atzetik, hiru protagonistak Euskal Herria eta Portugal bitarteko putetxe guztietatik pasatuko dira, bertako nagusi mallosoen susmo txarrenak piztuz.

SAN MIGELEKO JAIAK

OSTIRALA, 26

20:00etan kanpai jotze eta txafliu jaurtiketa **jaien hasiera** iragarritz.

22:30etan bertso jaialdia Peliagarikano, Egaria, Mendiluze, Jon Sarasua eta Sebastian Lizasorekin.

Ondoren erromeria Egan taldearekin.

LARUNBATA, 27

22:30etan dantza jaialdia Haritz Euskal Dantzari Taldearekin.

Ondoren erromeria Luhartz taldearekin.

Goizaldeko letan bolo txapelketa. Lehenengo saria Sthil motozerra. Bigarrena 12.000 pta. Hirugarrena 8.000 pta. Laugarrena 4.000 pta. bosgarrena 2.000 pta. eta seigarrena ustekabea. Auzoko lehenarentzat garaikurra.

IGANDEA, 28

11:30etan meza.

Ondoren trikitia Balzola anaiekin.

12:30etan artzai txakurren erakusketa: Ramon Larriariaga "Riki"rekin, Jon Osoro "Pintxo"rekin eta Jose A. Arrillaga "Txiki"rekin.

17:30etan idi demak: Soarte, Gorixo eta Madarixako Ezkerra. Lehenengo saria 125.000 pta. eta garaikurra. Bigarrena I 10.00 pta. eta garaikurra, Hirugarren saria 100.000 eta garaikurra.

22:00etan erromeria Balzola anaiekin.

ASTELEHENA, 29

11:30etan meza nagusia.

Ondoren, Ziarda eta Matuikorta **bertsolariak.**

13:00etan auzoko bikoteen XIV. pilota txapelketaren azken partidua.

22:00etan erromeria Trabuko taldearekin.

Gauerdiko 12etan txekorraren zozketa.

• Kilometroak 97ra joateko autobusak

Aurten Pasaia-Lezon izango da Kilometroak 97 jaia urriaren 5ean, igandea. Urtero bezala, Elgoibartik autobusak irtingo dira igande goizean. Elgoibarko Izarra Elkarrekin antolatu ditu autobusak eta izena emateko 74 16 26 telefono zenbakira dei daiteke. Prezioei dagokienean, gurasoekin doazen 12 urte bitarteko haurrek dohainik izango dute autobusa. 12 eta 18 urte bitarteko gazteek 500 pta. ordaindu beharko dute eta 18 urtetik gorakoek 1.000 pta.

• Zazpikiren bilerarako bigarren delaldia

Zazpiki Irratiak bigarren bilerarako deia luzatu nahi die joan den denboraldian irrati programan egiten jardun duten guztiei baita irratsaioak egin izan dituztenei ere. Aurreko larunbatean inor ez zen agertu bilerara, hortaz, ahalik eta jende gehien hurreratzea komeni dela azpimarratu nahi dute. Bilera larunbatean, hilak 20, izango da eguerdiko 12etan ganbaran.

• Alderdi egunerako autobusak

Hilaren 28an, Gasteizko Salburuan EAJ-PNVk ospatuko duen Alderdi Eguna joateko autobusa antolatu du Uri-Buru batzarrak. Irteera goizeko 9etan izango da Sigmako zubitik.

T X A N D A K

FARMAZIAK

- | | Eijunez | Gauetz |
|----|---|--------|
| 27 | Etxeberria* Zabaleta (Santa Ana) | |
| 28 | Etxeberria* Zabaleta (Santa Ana) | |
| 29 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 30 | Yudego Zabaleta
1 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 2 | Etxeberria* Escala (Errosario) | |
| 3 | Bidasolo Bidasolo *(eguerdiko 2ak arte) | |
- ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ZABALETA: Karebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

28 igandea **Deña Mercedes**

Salerosketak

Ir SALDU•

- Baserrian jasotako urrak eta in-txaurrak saltzen dira. tr 74 23 30 (Eusebi)
- Merlin 350 Trilaeko motorra saltzen da. tr 74 26 32 (Txomin).
- Idazmakina elektronikoa salgai. rr 74 44 43
- Vespa motorra saltzen dut. tr 909 82 22 59
- 120 haxu eta hasseti dituen Bos-sini esku soinua saltzen da prezio onean. la erabili gabe, egoera one-an. tr 75 61 33 (gauze).

✦ Egurrezko berogailu baten kal-dera eta butanozko berogailua sal-gai. tr 74 41 28 (Tere, gauze).

- Aukera interesgarria: Beneeei Superliger eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garrantia eta estrak. tr 74 03 92 (Dani)
- Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). tr 907 84 40 54 (Unai)

• EROSI•

- Bigarren eskuko bizikleta estati-koa erosiko nuke. tEr 74 41 12/74 02 09

Etxebizitzak

- Etxea alokatzen da San Bartolo-me kalean. Altzariek, tr 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin. tr 74 22 25 (Arrate)
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. tr 74 02 24.
- Benidortn-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garbigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago. a 74 20 31.
- Etxe eguzkitsua salgai Sigman, altzariak eta guzti. a 74 20 78.
- *Pisua edo buhardila bat alokatu-ko nuke. Ez zait inporta herritik urrun badago. te 74 43 10 Cristobal.
- Elgoibarren pisua edo gela bat alokatu nahi dut. tr 74 40 40 (M. Eugenia)
- Pisua salgai Pedro Muguruzan, tr 74 04 56 (Maria)

Partikularrak

- Lizentziatuak fisika eta kimika-ko klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. is 74 43 98/74 08 09 (Marian)'
- Marrazketa tekniko eta diedri-ko klaseak ernaten dira. 74 43 98 (Ifiaki)
- *Latineko klaseak hartuko nituz-ke. ir 74 12 64
- Ingeleseko partikularrak ematen ditut. te 74 15 82 (Eduardo)

Lana

• ESKAINTZA•

- Taherna hatean eguneroko garhi-ketak egiteko eta orduka barran edo sukaldian aritzeko pertsona bat behar da. tr 74 37 71
- Neskatila bat zaintzeko neska euskalduna hehar da. 74 41 54 (Mertxe. Gauze).
- Taberna bat alokatzen da ezin delako atenditu. Bezero onak ditu. tr 74 03 92

- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Goizeko 9etatik arratsal-deko 8etara. 12 74 29 30 (arratsal-deko 3etatik 4etara).

*ESKAERA•

- ♦ Neska gaztea eskaintzen da etxe-hizitzak, portalak, bulegoak eta hestetakoak garbitzeko. Esperien-zia daukat. tr 74 06 09 (Marisabel).

Haurrak zaindu edo garbiketak egiteko neska gaztea eskaintzen da, esperientziarekin.

- 74 43 16 (Marimar).
- Titutodun ileapaintzaila edozein lan egiteko prest. te 74 22 91 (Cristina),
- Haurrak zaintzeko eta garhiketa egiteko neska eskaintzen da esperientziarekin, Arratsaldez egingo nuke lan. u. 74 43 16 (Arantxa).
- *Emakurte hat etxeko lanak egite-ko eta haurrak zaintzeko eskain-zen da. w 74 34 06

Neska euskaldunak umeak zain-duko lituzke. Esperientzia dauka. 13. 74 44 47 (Naiara. Arratsaldez).

- 25 urteko neska eskaintzen da gauetan pertsona nagusiak zaintze-ko. Esperientziaduna. tor 74 36 38 (Arrate)
- Etxea garbitzeko emakume hat eskaintzen da. rr 74 21 88
- 26 urteko neska tabernan lan egingo luke. Esperientziarekin. 73 75 20 69 (Kristina)

Garajeak

- Garajea alokatzen da San Ro-ken, Aterpe tahemaren azpian. la• 74 33 39.
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. s 74 05 49 / 74 09 09
- Trenhide kalean garajea salgai. Oso handia da, erullota edo bi kotxe sanzeko beste. Sobrepisoa dauka. tr 74 01 33
- Garaje itxia salgai Arregitorren. 17 75 5 1 77
- Urasanclin garajea dut alokatze-ko. Marraduna, u. 74 31 07
- Garajea salgai Juan Mugerza kalean. tr 74 12 04 {20:00-22:00}
- Garaje itxi hat saltzen dut Arregitorren. zr 74 34 10

Bestelakoak

- Taherna tntspasatzen da Deban. Martxan dago eta bezero onak ditu. Orain dela gutxi berritua. tr 19 19 54
- Baloi zuri-beltza galdu nuen hi-laren 11 ren inguruan. Topatzen duenak dei dezala 74 38 95 zenba-kira.
- Animalien ongizateak kezkatzen hazaitu eta animalien defentsarako talde hatean parten hartu nahi ha-duzu, jarri harremanetan ATEA ei-kartearekin (Animaliei Tratu Eti-koa ematearen aldeko Elkarte). Posta kutxa 334 Gasteiz edo 945 - 13 60 35/12 05 48 telefonoa-ko (Nerea).
- Begirale bolondresak behar dira astialdi talde hatean parte hartze-ko. 1T 74 33 05 (Alaitz). Gauze deitu utriaren 4a haino lehen.
- Familia bat edo bi behar dira urrian zehar Elgoiharko Lanhide Eskolara praktikak egitera datozen Alemaniako bi gazte etxean har-tzeko. Izena eman edo datu gehia-go jasotzeko 74 44 80 telefonora deitu. (Mari Asun)
- Irailaren lean Urasandiko erre-bueltan Citroen C-15 eta Ford Orion autoen artean izan zen istri-pua ikusi zuena jar dadila harre-manetan lidaltz, aingoarekin. IV li-la esker.
- Eskusoinuak konpontzen ditut inerke, Modelo guztiak. tr 47 00 01 (arratsaldeko 5etatik 7etara, ostegunetan izan ezik).
- Berearara goizez joateko autoa hehar dugu. Goizeko 8etarako Ber-garan egon behar dugu. 74 34 99 (Eulaii) eta 74 23 28

Agurrak



- IVIlla kilo zo-rion Aitorri irai-laren 24an 7 urte hete zituelako. Guraso eta anaiaren partez.



- Zorionak Agurtzane Bas-lidari urriaren 17an 35 urte egingo dituela-ko. Familia oso-aren partez ete bereziki Nadia eta Noraren partez




- Zorionak Idu-rrre! Eta utzi zer-bait niretzat. Zu-re ahizpa Mira-rik.



- Zorionak Izaskuni bere urtebetze egune-an, Enara eta Txominen par-tez.



- * Zorionak Maialen Astiga-rragari hilaren 24an 12 urte bete zituelako. Gura-soen eta Aneren partez. Baita Ikastolako mailako eta Lorearen partez ere.



- Zorionak Mi-ren Agirreri hi-laren 29an 10 urte beteko di-tuelako. Aitxit-xa, amaina eta gurasoen partez,



- Beste guztiak zoriondu eta ge-ro, gure zuzen-dariari ere bela-rritik tira egin gabe ez gara ge-ratuko. Hilaren 30ean beteko di-tuzun 28 urteei ostean gutxienez beste horrenbeste etor daitezela. Bexitos, Lolo! "La Estreia" eta BARRENe "kolegen" partez.

San Migel auzoko jaiak

97

EGITARAUA

26, OSTIRALA

20:00etan kanpai jotze eta txafligu
jaien hasiera iragarritz.
bertso jaiaidia

Peñagarikano, Egaña, Mendiluze, Jon
Sarasua eta Sebastian Lizasorekin. Gai
rtzaile Lazaro Azkune.

erromeria Egan taidearekin.

an za jai Haritz
tzari Talclearekin.
erromeria Luhartz

Goizaldeko leta **olo txapelketa.**
hil motozerra.

Bigarrena 12.000 pta.

Hirugarrena 8.000 pta.

Laugarrena 4.000 pta.

Bosgarrena 2.000 pta. eta seigarrena
ustekabea.

Auzoko lehenarentzat garaikurra.

28, IGANDEA

1 1:30et **meza.**

Ondoren rikitia Balzola anaiekin.

2: **artzai txakurren**

e • kusketa: Ramon Larrañaga
Rikirekin, Jon Osoro Pintxorekin eta Jose
A. Arrilla a Txikirekin.

17:30eta idi demak: Soarte, Gorixo
eta Madarixako Ezkerra. Lehenengo saria
125.000 pta. eta garaikurra. Bigarrena
110.00 pta. eta garaikurra. Hirugarren
saria 100.000 eta garaikurra.

3 etan **erromeria** Balzola anaiekin,

29, ASTELEHENA

11:30eta meza nagusia.

Ondore Ziarda eta Mañukorta
bertsolariak.

3:01; letart auzoko bikoteen **XIV. pilota
txapelketaren** azken partidua.

22:00etan erromeria Trabuko
taldearekin

**Ga uer o 12etan ekorraren
zozketa.**

LAGUNTZAILEA: Elgoibarko UdaJa



OHARRA:

rka e u egongo a. Aritolatzadeek ez clute gerta daitezkeen ezbeharren ardura bere gain hartuko.

Ireki berria



Jantzi
Maidagan
Denda

